

# Ekonomia, politika eta idiotak




NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**P**eloponeso, duela 3.200 urte inguru. Hondamendi naturalak, barne gatazkak eta Itsasoko Herrien erasoak medio, Mizenasko zibilizazioa gainbehera etorri zen. Eraikin handiak, idazketa, merkataritza sareak... itzali egin ziren, eta antzinako Greziako Aro Iluna hasi zen.

Mizenasko botere egitura monarkikoa hautsita eta penintsularen orografiak eragindako isolamenduak bultzatuta, *oikos*-ak sortu ziren. *Oikos* hitzak etxea esan nahi du, baina zentzurik zabalenean: eraikina bera, familia, familiaren gainerako ondasunak (ganadua, lurrak, esklaboak...) eta han lan egiten zuten jornalariak. Beraz, garaiko gizartearen oinarriko entitate ekonomikoa zen. Eta, hain zuzen, ekonomia hortik dator, *oikonomia* hitzetik: *oikos* (etxea) eta *nemein* (kudeatu).

Interes komunek eta kanpoko mehatxuez babesteko beharrak bultzatuta, oikosak batuz joan ziren eta antolaketa modu berri bat sortu zen: *polis*-a edo hiri-estatu. Aristotelesek zioen *polis*-ak pertsonen ongizaterako batutako *oikos*-en multzoak zirela. Aro Iluna pasata, Grezia Arkaikoa politikoki, sozialki eta ekonomikoki independenteak ziren komunitate horiek osatu zuten. Baina *polis*-en artean lehia gogorra zen arren, hizkuntza bera -dialektoak dialekto-, erlijioa eta, oro har, kultura partekatzen zuten.



HULTON ARCHIVE

Politika hitzak antzinako greziako 'polis'-etan du jatorria.

*Polis*-etik dator politika hitza. Jatorriz, hiri-estatuarekin zerikusia zuen guztia zen politika. Aristotelesek gizakia *zoon politikon* zela zioenean, gizakia animalia soziala zela esan nahi zuen, hiri-estatu batean eta legeen menpean bizi zena. Beraz, politikoa eta publikoa sinonimoak ziren.

Antonimoen bila, aldiz, *idiotes* hitza ageri zaigu; pribatua esan nahi du antzinako grekeraz. Beraz, jatorrian, idiota soilik interes partikular eta pribatuz

arduratzen zena zen, afera publikoei jaramonik egiten ez ziena. Greziarrek garrantzia izugarria ematen zioten bizitza publikoari eta, horregatik, mespretxuzko kutsua hartu zuen *idiotes* hitzak.

Eta, hala, Aro Ilunetik esnatzean, greziar zibilizazioa garatu ahala, europar zibilizazioaren oinarriak taxutuz joan ziren. Eta etimologikoki antonimoak ziren politikariak eta idiotak hurbiltzen joan ziren pixkanaka. ●



JAROSLAV MORAVČIK

## Ez deitu "momia"

Britainia Handiko museoek, Londresko British Museum buru dutela, gomendio bat luzatu berri dute: momiei "momia" ez esatea. Horregatik, "pertsona momifikatu" edo "arrasto momifikatu" esatea hobetsi dute. Hitz horrek gizatasuna kentzen omen die eta ez omen da ego-kia iraganean bizi izan ziren pertsonen hitz egiteko. Fikziozko munstro bati ere

erreferentzia egiten diola kontuan hartu dute eta, gainera, terminoak kutsu kolonialista duela uste dute.

Egipton espoliatutako ehunka eta ehunka momiak (barkatu, pertsona momifikatuak) eta, oro har, beste herrialde batzuetan espoliatutako ondarea ez itzultzeak ez dauka haien zat kutsu kolonialistarik, itxuraz. ●